herrera

Emakumeek sarrera zabalik

Herrera Kirol Elkarteak erabaki txalogarria hartu du, hain zuzen ere, emakumeekiko zuen portaera aldatzearena. Emakumeek ezin izan dute sekula modu normalean parte hartu elkarte honetan, elkartean sartzea bera ere aste buruetan bakarrik baimentzen zitzaielarik. Hau horrela izan da urte askotan, baina zorionez, gizonezkoen nagusitza bertan behera gelditu da alde batetik auzoko emakumeek egin duten presioagatik (bertan familia osoen parte hartzea murriztuz) eta bazkide berriek parte hartu ahal izateko.

Erabakia dela eta, zuzendaritza larri

Hain erraza ematen duen erabakiak borroka eta istilu ugari ekarri dizkie elkarteko bazkideei, beraien arteko haserreak sortuz eta zenbait kasutan elkarteko zuzendaritza bera ere kinka larrian jarriz.

Herrera Kirol Elkarteak 50 urte betetzen dituenean, auzoko emakumeek hartu dute nagusitasuna eta bertan, parte hartzaileen sexua alde batera utzirik pertsonek dute hitza.

LARRAITZ GARMENDIA [TFNOA.: 391267]

Argazkia: Oier Los Santos

Herrera kirol elkarteak 50 urte bete behar izan ditu emakumeei eskubide osoz sartzen uzteko.

Mendi-Zaleak elkarteak hileko mendi ibilaldia proposatzen digu iganderako, hilak 9. Ibilaldia Zunbeltz benta, Dulantz, Etxarriko Harriak eta Irantzu monastegira izango da. San Luis plazatik aterako da 07.30etan eta prezioa 1.300 pezetakoa izango da.

altza

Gaurko eta biharko neskak

Emakumearen astea antolatu da Altzan ere martxoaren 8aren inguruan. Elkarte Berri, Ostadar eta Ustai Belar emakume elkarteek egitarau interesgarria prestatu dute antzerkia, zinema, hitzaldi eta afariak tartekatuz. «Gaurko eta biharko emakumea» izenburua jarri diote astebeteko ospakizunari.

Astean zehar emakumeek egindako eskulanak egon dira ikusgai. Ausartak antzerki taldeak Charo Solanasen «Menos que nada» bakarrizketa taularatuko du. Rosa Maria Mateos kazetari ezaguna izango da hizlari, aste honen barruan eskainiko den hitzaldi bakarrean. Zinemari dagokionean, «Antonia's line» filmea emango da.

«Altza Ikertzeko Diru-Laguntza» martxan jarri du Altzako Historia Mintegiak, 150.000 pezeta, irabazlearentzat. Ikerketaren eremua giza zientzia izango da eta lanak martxoaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dira Kutxako sukurtsaletan edo Casaresen.

Odontologia Klinika
Dr. Beobide
Medikua - Odontologoa
Ametzagaña 49
EGIA (elizaren ondoan)
Tfnoa.: 276227

sukaldeak galeriak
GIPUZKOA
SUKALDE ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK • TB. • BIDEOA
Gipuzkoa Plaza 4 • Tfnoa.: 42 35 65

AINHOA
taberna
Pintxoak eta kazuelitak
Sarroeta 90, MARTUTENE